

FAS Zineklubari buruzko informazio guztia

Nor gara?

FAS Zinekluba 1953. urtean bere jarduera hasi zuen elkarte kulturala da. Gaur egun Estatu Espainolean eta European funtzionamenduan dagoen zineklubik zaharrenetako bat da. 150 bazkidek osatzen dugu zinekluba eta emanaldietara 300 ikusle inguru hurbiltzen dira. Aipagarria da ere, gure zineklubak daukan garrantzia ez bakarrik Bilboko edo Euskal Herriko eremu kulturean barrena baizik eta Estatu mailan ere. 2013 kurtsioan zehar gure 60.urteurrena ospatuko dugu.

Zer egiten dugu?

Gure eginkizunik garrantzitsuena, zinemaren lagunei zuzenduriko eskaintza zinematografikoa osatzea da, hiru ildo nagusi hauek jarraituz:

1. Bilbon estreinaldirik izan ez duten pelikulen jatorrizko bertsiok gaztelerazko subtituloekin eskaintzea.
2. Pelikula aintzindariak berreskuratzea.
3. Zinemaren munduan mugitzen diren zinegile eta ikerlariak emanaldietara ekartzea.

Emanaldi guztiak solasaldi batekin amaitzen dira. Bertan pelikulak eratzeko prozesuan parten hartzen duten elementu tekniko eta artistikoak aztertzen direlarik. Liburutegi erabateko zerbitzu bat eskaintzen dugu (urte osoan zehar zabalik); entziklopediak, mila liburu baino gehiago eta milaka aldizkari berezitu. Erakunde publiko eta pribatuei zinema arloan laguntza eta aholkularitza eskaintzen diegu, baita jendarteari ere.

Bilakaera

1. Bere hasiera-hasieratik FAS Zineklubaren bazkideak Euskal herriko zinegile, kazetari eta zinema irakaslerik entzutetsuenak izan dira: Pedro Olea, Enrique Urbizu, Álex de la Iglesia, Luis Marías, Pablo Berger, Ernesto del Río, Javier Rebollo, Juan Ortuoste, Santos Zunzunegui, Paulino Viota, Antton Merikaetxebarria, Alberto López Echevarrieta, Oskar L. Belategui, eta beste askok. 2. 2000. urtean "La noche más corta" Canal+eko saioan, FAS Zinekluba aukeratu zuten estatuan laburmetraien hedapenaren inguruan mugitzen ziren entitateen artean garrantzitsuenetarikoa bezala. 3. 1996. urtean sustraizko aldakuntzak egiten dira elkartean zinekluba desager ez dadin, logotipoa aldatzen da, eta Jose Luis Cuerda zuzendari eta ekoizleak "Foro del Cine y de la Imagen de Bilbao", inauguratzen du. 4. 1994. urtean "Zinemaren bultzapenarentzako lanik oneraren" saria jaso zuen "El Mundo del Pais Vasco"ren IV sari banaketan. 5. 1983an Bilboko uholdeetan kalteturiko pertsonentzako zinema aste bat antolatu zen. 6. 1978an Kultura Ministeritzarekin akordio bat sinatu zen, oso gertaera berezia da horrelako elkarte mota batentzako. 7. 1959an Bilboko zinemaldiaren sorreran, ZINEBI, parte hartzen du,

bertan urtero "Premio a la Innovación Cinematográfica" saria banatzen duelarik. 8. 1956. urtean, urriko 3tik 7ra arte, FAS Zineklubaren egoitzan, Bilbon, zinekluben lehenengo bilera nazionala ospatzen da, bertan zinekluben elkarte nazionala eratuko da. 9. 1952. urtean, urriaren 31n, hitzaldi ziklo bat antolatzen da "Preparatorias a las sesiones de cine-fórum" deiturikoak, hauek zineklubaren sormenatzat hartuak izan daitezke. Bere sorkuntza 1953-54 urteren bitartean izan zen, eta estatutuak 1954ko irailaren 30ean sinatu ziren.

Bitxikeriak

1. Pio XII Paparen enziklika "Film ideal"i buruz, FAS Zineklubaren sorreran eragin izugarria izan zuen. Garai hartan elkarteentzako lan egitea oso zaila zen frankismoak inposaturiko ereduengatik. 2. Bilboko apezpikuak, Pablo Gurrupidek, bere abadei FASaren emanaldietara gerturatzea eskatzen zien, eta askotan, proiektioetan lo, edota alde zurratik ateratzen zirenei zigorrak ezartzen zien. 3. Estatutuen lehenengo artikulua zera eskatzen zuen «*politikaren zerikusia duena alde batetara uztea eta iharduerak sumisio osoz betetzea, Eliza Ama Nagusiari eta Espainarekiko leialtasun osoz*». 4. Lehenengo urteotan aholkulari morala esistitzen zen, pelikulak eta solasaldiak zentsuratzen zituen. 5. Diktadura garaian debekatuak zeuden pelikulen proiektioak egiten ziren, "Bronenosets Potyomkin" edo "Oktyabr" horietako batzuk izan ziren. Azkenengoa, espainar gobernuaren ordezkari gorenaren presentzia ekarri zuen FASera, hori bai, bere burua ordezkatzeko. 6. Frankismo garaiko proiektio eta solasaldietan, eztabaida algaratsuak gogoratzen dituzte bazkide nagusienek, batzuetan ere pelíkula eten egin behar izan zuten. 7. Gertaera historiko batek ez du sekulan lortu emanaldi bat bertan behera ustea, nahiz eta adibidez 1981ko estatu kolpearen saiakera FASaren proiektioaren egun berean izan.

Gonbidatuak

Asko eta asko izan dira urte guztietan zehar FAS Zineklubera hurbildu diren gonbidatu bereziak, eta azken urteotan zenbakia handitu da 'Zinemari buruzko hitzaldiak' izeneko programaren bidez. FAS Zineklubeko emanaldietan parte hartu dute, besteak beste: 1. Zuzendariak: Vicente Aranda, Rodrigo Cortés, José Luis Cuerda, Víctor Erice, Philippe Grandjean, José Luis Guerín, Joaquim Jordá, Richard Kwietniowski, Isaki Lacuesta, Jørgen Leth, Pedro Olea, José María de Orbe, Javier Rebollo, David Trueba, John Sayles, Albert Serra, Enrique Urbizu, Agustí Villaronga, Toni Abad, David Aguilar, Roser Aguilar, Pedro Aguilera, Miguel Albaladejo, Asier Altuna, Mercedes Álvarez, Aitzol Aramaio, Carlos Benpar, Elisabet Cabeza, Daniel Calparsoro, Óscar del Caz, Borja Cobeaga, Mar Coll, Javier Corcuera, Rafa Cortés, Miguel Courtois, Telmo Esnal, Patricia Ferreira, Santiago Fillol, Jon Garaño, Enrique García, Víctor García León, Salvador García Ruiz, Michel Gasco, Tinieblas González, Alberto J. Gorritiberea, Alan Griffin, Chus Gutiérrez, Antonio Hernández, Manuel Huerfano, Igor Legarreta, Gonzalo López Gallego, José Luis López Linares, Santiago Lorenzo, Belén Macías, Pablo Malo, Luis Marías, Manuel Martín Cuenca, Manolo Matijó, Udo Maurer, Fernando Méndez Leite, Sergio Oksman, Inés Paris, Vicente Peñarrocha, Miguelanxo Prado, Xavi Puebla, Norberto Ramos del Val, Marc

Recha, Esteve Riambau, Javier Rioyo, Edmon Roch, Rubén Salazar, Jorge Sánchez-Cabezudo, Oskar Santos, Koldo Serra, Helena Taberna, Santiago Taberner, Felipe Vega, Pere Joan Ventura, Norma Vila eta Lydia Zimmermann. 2. Gidoigileak: Eva Baeza, Eduardo Bajo Ulloa, Bernardo Belzunegi, Thomas Bidegain, Oriol Capel, Fernando Castets, Javier Echaniz, Ignacio Gil Bengoa, Michel Gaztambide, Asier Gerrikaetxebarria, Jorge Gerrikaetxebarria, Belén Gopegui, Ángeles González Sinde, Fernando Marías, Ignacio del Moral eta Maitena Muruzabal. 3. Ekoizleak: Lluís Miñarro, José María Lara, Iván Barredo edo Iñaki Sagastume. 4. Aktoreak: Gorka Aginagalde, Itziar Aizpuru, Jon Ariño, José Ramón Argoitia, Ramón Barea, Iñake Irastorza, Mariasun Pagoaga, Aitor Mazo, Silvia Munt edo Anna Ycobalzeta. 5. Zinemaldi edo kultur-ekitaldi garrantzitsuen arduradunak: José Julián Baquedano, Roberto Castón, José Luis Cienfuegos, Diego Galán, Ramuntxo Garbisu, José Luis Rebordinos, Kepa Sojo edo Juan Zapater. 6. Zine kritikariak eta irakasleak: Carles Balagué, Oskar L. Belategui, Luciano Berriatúa, Silvia Colmenero, Iratxe Fresneda, Mikel Insausti, Alberto López Echevarrieta, Txabi Loyola, Paulino Viota edo Santos Zunzunegui. 7. Idazle ospetsuak: Fernando Arrabal, Unai Elorriaga, Vicente Molina Foix edo Kirmen Uribe. 8. Eta musikari eta taldeak: José Luis Canal, Matt Harding, Kepa Junkera, Morlans, Iñigo Muguruza edo Orontes Project.

Non eta noiz?

Non proiektatzen dira filmak?

El Carmen Aretoan (Indautxuko Enparantzan). Hala ere, noizean behin beste areto batzuetan izaten ditugu gure jarduerak egokiera bereziak direla eta, edo erakunde ezberdinekin izaten ditugun elkarlanen arabera. Hori gertatu ezker, gure kide eta jarraitzaileak aurrerapen nahikoarekin ohartaraziko ditugu.

Zer egun eta ordutan proiektatzen dira filmak?

Asteartero, arratsaldeko 19:15etan. Ohiko egun eta ordutegia errespetatzen saiatuz, batzutan data berriak gehitzen ditugu gure egutegian, zineklubak antolatu edo parte hartzen dituen jarduera bereziak direla eta. Horregatik gure egitaraua kontsultatzea, edota gure informazio-kanalen bitartez (digitalak: facebook, twitter, web orria) ematen ditugun berriei adi egotea gomendatzen dugu.